

# BARNEKO INFORMAZIOAREN SISTEMAREN PROZEDURA (2/2023 LEGEA, OTSAILAREN 20KOA)

## 1. XEDEA

Prozedura honen xedea da LAURO IKASTOLA ezarritako barneko informazio-sistemaren funtzionamendua zehaztea.

Prozedura honetan, Kooperatiban ezarritako sistematika zehazten da, egite edo ez egiteen ondorioz delitu-egintza bat egitea, barne-araudia eta kanpo-araudia urratzea eta/edo erakundearen delituak egiteko arriskua sortzea dakarten jarduketan aurrean zehapenak jakinarazteko, izapidetzeko, ikertzeko eta, dagokionean, aplikatzeko, baita salatzaileak babesteko ere, erabiliko dena, 2023ko otsailaren 20ko 2/2023 Legea, arau-hausteei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonak babesteari buruzkoa, betez.

## 2. Zereginak eta erantzukizunak

Kooperatibak Betearazpen Batzorde bat du, Compliance Penaleko Sistema ezartzeko izendatua eta Kode Etikoa aplikatzen dela bermatzeko. Arrisku penalak prebenitzeko ezarritako neurriak betetzen direla bermatzea da, besteak beste, batzorde horren eginkizuna. Berori arduratzen da salaketakanala@lauro.eus postontziaren bidez jasotako salaketak izapidetzeaz. Hala ere, salaketak egiteko kanal anonimo bat jarri da web orrialdean.

Segurtasun eta Higiene Batzordea izango da Betearazpen Batzordea, ondoko partaideak eukiko ditu:

- Segurtasun eta Higieneko partaideak prebentzioko tekniko barik
- Aholkulari juridikoa

2023ko otsailaren 20ko 2/2023 Legea betetzeko, Betearazpen Batzordeak bere gain hartu ditu Barneko Informazio Sistemaren arduradunaren —aurrerantzean, BISA— eginkizunak, 8. artikuluko 6. apartatuarekin bat etorritik. Atal horrek haxe ezartzen du:

*«6. Araudia betearazteko funtzioaren edo integritate-politiken —edozein dela ere izena— ardura duen pertsona bat lehendik duten erakunde edo organismoek pertsona hori izendatu abal izango dute BISA izan dadin, betiere lege honetan ezarritako baldintzak betetzen baditu».*

Orobat, 8. artikuluko 2. apartatuaren ildotik:

*«2. Sistemaren Arduraduna kide anitzeko organo bat izatea erabakitzen bada, organo horrek bere kideetako baten esku utziko ditu Barneko Informazio Sistema kudeatzeko eta ikerketa-espeditentak izapidetzeko ahalmenak».*

Betearazpen Batzordeak Zuzendari Gerentearen esku utzi du eginkizun hori.

## 3. Sistemaren egitura

Komunikazio-sistemak informatzailearen, komunikazioan aipatzen den edozein hirugarrenen eta komunikazioa kudeatu eta izapidetzeko garatzen diren jardueren konfidentziasuna bermatuko du,

# SALAKETA KANALA - 2/2023 LEGEA

baita datuen babesaren ere, eta baimenik gabeko langileei sarbidea galaraziko die.

Halaber, informazioaren osotasuna, benetakotasuna eta trazabilitatea bermatuko dira.

Barneko komunikazio-kanalek komunikazio anonimoak aurkezteko eta ondoren izapidetzeko aukera emango dute.

Barne-kanalak datu pertsonalak babesteari buruzko xedapenak betetzen direla bermatuko du, legean aurreikusitakoaren arabera. Ez da bilduko informazio espezifiko bat tratatzeko beharrezkoa ez den datu pertsonalik, edo, nahi gabe biltzen bada, bidegabeko luzamenik gabe ezabatuko da.

## 4. KOMUNIKAZIO-MODUAK

### BARNE-KANALA

**Barne-prozedura** arrazoi hauengatik hasi ahal izango da:

1. BISAk edozein bitartekoren bidez ez-betetze baten berri izateagatik.
2. Salaketa-postontzian komunikazio formalaren bidez salaketa jasotzeagatik.
3. BISArri idatzizko salaketa iristeagatik, posta arruntez, ahoz edo horretarako prestatutako edozein baliabide elektronikoz, telefonoz edo ahots-mezularitzako sistema baten bidez. Dagokionean, komunikazioa grabatu edo transkribatu egingo dela adieraziko zaio informatzaileari, eta bere datuen tratamenduaren berri emango zaio, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan ezarritakoaren arabera.
4. Informatzaileak eskatuta, bilera presentzial baten bidez ere aurkeztu ahal izango da, gehienez ere zazpi (7) eguneko epean.  
Ahozko komunikazioak —aurrez aurreko bileretan, telefonoz edo ahots-mezularitzako sistema baten bidez egiten direnak barne— modu hauetako bat erabiliz dokumentatu beharko dira, informatzailearen aurretiko baimenarekin:
  - i. Elkarrizketaren grabazioa, formatu iraunkor, seguru eta irisgarri batean.
  - ii. Elkarrizketaren transkripzio oso eta zehatza, elkarrizketa tratatzeko arduradunak egina.Datuen babesari buruzko araudiaren arabera dagozkion eskubideei kalterik egin gabe, informatzaileari aukera emango zaio elkarrizketaren transkripzioa egiaztatze, zuzentze eta onartzeko, sinaduraren bidez.

### KANPO-KANALA

Kasu guztietan, komunikazioa barne-kanalen bidez egiten dutenei modu argi eta irisgarrian jakinaraziko zaie **kanpo-kanalak** ere badaudela, informazioak eta salaketak agintari eskudunei eta, behar denean, Europar Batasuneko erakunde, organo edo organismoen helarazteko.

## 5. SALAKETEN TRATAMENDUA

Beren beregi jarritako postontzietako batean salaketa jasotzen denean hasiko da epea zenbatzen. Salaketarekin batera, hura justifikatzen duen dokumentazio guztia ere sartu beharko du informatzaileak.

**Idatziz, ahoz edo aurrez aurreko bilera batean** jasotako komunikazio guztiak konfidentzialtasunez

# BARNEKO INFORMAZIOAREN SISTEMAREN PROZEDURA (2/2023 LEGEA, OTSAILAREN 20KOA)

tratatuko dira.

Jasotako komunikazioak BISArri helaraziko zaizkio, eta hark jakinarazpenaren hartu-agiria bidaliko dio informatzaileari, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zazpi (7) egun naturaleko epean, salbu eta horrek komunikazioaren konfidentziasuna arriskuan jar badezake.

Salaketa jasotakoan, edozein modutan jaso dela ere, idatziz erregistratuko da, eta berehala aztertu eta egiaztatuko da ez-betetzea izan daitekeen edo den jarduketaren bat ote dagoen.

BISAk azalpen edo zehaztapen gehigarriren bat eskatu ahal izango die salatzaileari eta/edo inplikaturako pertsonari. Hori egin behar izanez gero, atzeratu egingo da epe osoaren data.

Azterketa eta egiaztapen horien ondoren, hauek egingo ditu BISAk:

1. Aurkeztutako salaketa onartu eta espedienteari hasiera eman.
2. Salaketa ez onartu, deskribatutako ez-betetzekin bat datorren jarduketarik ez ikusteagatik edo haiek zorroztasunik eta/edo objektibotasunik ez izateagatik.
3. Ez-betetzea berriro ebaluatu, deskribatutako gertakariak edo jokabideak aintzat hartuta, eta behar bezala kalifikatu, dagokion moduan izapidetzeko.

Aurkeztutako salaketa onartu edo ez-betetzea berriro ebaluatu ondoren, BISAk zehaztuko du, gaia kontuan hartuta, zer organok ikertuko duen gertakaria eta aterako dituen ondorioak. Horrenbestez, honako hauei transferitutako dizkie komunikazioa eta dokumentazioa:

- **Datuak babesteko arduradunari**, datuak babesteko araudiari buruzko salaketen kasuan.
- **Giza Baliabideen departamentuari**, lan-araudiaren arau-hausteekin lotutako gaietarako.
- **Salatutako gertakariak eragindako beste edozein atali.**

Salaketa izapidetzeko beharrezkoak diren datuak soilik transferitutako dira, eta salatzailearen babesa bermatuko da beti.

Honako hauek soilik izango dute Barneko Informazio Sistemaren datu pertsonaletarako sarbidea, beren eskumen eta eginkizunen esparruan:

- i) BISAk eta sistema zuzenean kudeatzen duenak.
- ii) Giza baliabideen arduradunak edo behar bezala izendatutako organo eskudunak, baina langile baten aurkako diziplina-neurriak hartu behar direnean bakarrik.
- iii) Erakundeko edo organismoko zerbitzu juridikoen arduradunak, baldin eta komunikazioan adierazitako gertakariekin lotuta legezko neurriak hartu behar badira.
- iv) Tratamenduaz arduratzeko izendatutako pertsonak.
- v) Datuak babesteko ordezkariak.

## 5.1. Interesdunari entzutea

# SALAKETA KANALA - 2/2023 LEGEA

Salatutako gertakariei buruzko ondorioak atera ondoren, interesdunari eta/edo ukitutako pertsonari entzungo zaie, alegazioen izapidea egin dezaten 3 egun naturaleko epean (epe hori ezin da luzatu).

Salaketak lan-araudiari eragiten badio, langileen legezko ordezkariari ere entzungo zaio aldi berean.

Ateratako ondorioek agerian jartzen badute beste ez-betetze batzuk egin daitezkeela edo langileentzat edo instalazioentzat arriskutsuak izan daitezkeen egoerak sor daitezkeela, horren berri eman ahal izango zaio Zuzendaritza Batzordeari, behin-behineko neurriak har ditzan.

## 5.2. Ikerketa

Ikerketa-prozesuan parte hartzen duten organoek eta pertsonak printzipio gidari hauek bete beharko dituzte:

- **Bizkortasuna:** prozedurak arina behar du izan, izapidetzean justifikaziorik gabeko atzerapenak saihestuta.
- **Konfidentzialtasuna:** konfidentzialtasuna bermatu behar da, inplikaturako pertsonen ohoreari, intimitateari, irudiari eta duintasunari kalte egiten dien edo egin diezaiekeen filtraziorik gabe.

Prozesuan parte hartzen duten pertsona guztiek isilpean gorde behar dituzte prozesuan eskura izaten dituzten datuak eta informazioak. Betebehar hori urratzea zehagarria izango da.

- Inplikaturako pertsona ororen **errugabetasun-presuntzioa**.
- **Prozeduraren objektibotasuna, inpartzialtasuna, autonomia eta independentzia.** Hori bermatzeko, sakon eta zorrotz ikertuko dira jakinarazitako gertakariak, eta bidezko tratamendua emango zaie eragindako pertsona guztiei, Kooperatibako beste departamentu edo gobernu-organo batzuen inolako esku-sartzerik onartu gabe.

Ikerketa-jarduketei erantzuteko gehieneko epea **ezin izango da hiru hilabetetik gorakoa izan**, komunikazioa jasotzen denetik zenbatzen hasita, edo, informatzaileari hartu-agiririk bidali ez bazitzaion, komunikazioa egin eta zazpi eguneko epea amaitzen denetik zenbatzen hasita. Dena den, salbuespen bat dago: konplexutasun bereziko kasuetan, epea luzatzea beharrezkoa izan daiteke, eta beste hiru hilabetez luzatu ahal izango da, gehienez.

## 5.3. BISAREN IKERKETA-PROZEDURA

BISAk eskumena izango du delitu-egintzei, barne- nahiz kanpo-araudien urraketek eta betetzeko arriskuari buruzko salaketak izapidetzeko eta ikertzeko.

Halaber, informazioa eskatuko die hirugarrenei, baldin eta beharrezkoa bada:

- Informazio gehiago lortzea.
- Salaketa edo komunikazioa argitzeko dokumentu gehigarriak ekartzea.

BISAk, proposaturako erabakia behar bezala arrazoitu beharko du ondorio-dokumentuan —jardueraren proposamen bat ere izango du—. Dokumentu horrek jarduketa hauetakoren bat ekarriko du berekin:

- Arau-hauslearen kontrako diziplina-espedienteari hasiera ematea, aplikagarri zaion hitzarmen kolektiboaren babesean, baldin eta ondorioztatzen bada jokabide hori laneko arau-haustea izan daitekeela.
- Neurri zuzentzaileak hartzea, gertakariak edo jokabideak Kooperatibaren barruan berriro gerta ez daitezen.

# BARNEKO INFORMAZIOAREN SISTEMAREN PROZEDURA (2/2023 LEGEA, OTSAILAREN 20KOA)

- Gertakariak edo jokabideak dagozkien agintari judizial edo administratiboei jakinaraztea.
- Kooperatibak edo hartako kideren batek egozpen penala jasotzeko arriskua sortzen duen jokabiderik gauzatu ez dela egiaztatzea.

Jakinarazitako gertakariak argitzeko jarduketak egin ostean, Betearazpen Batzordeak ikerketa-prozedura amaituko du, eta ondorio formalak emango ditu. Horiek kontuan hartuta, erabaki hauetako bat hartuko du:

1. Delitu penalen eta arauen ez-betetzeen kasuan, ateratako ondorioa Kontseilu Errektoreari helaraztea, baldin eta zehapena jartzea haren erantzukizun-eremuaren barruan badago.
2. Gainerako ez-betetzeen kasuan, ateratako ondorioa Zuzendaritza Batzordeari helaraztea.
3. Ikerketa-prozedurari itxiera ematea, ez-betetzetik gertatu ez bada.

Ikerketaren emaitzatik ondorioztatzen bada delituren bat egon dela, Kontseilu Errektoreari jakinaraziko zaio, eta salaketa aurkeztuko da, dagokion organismoan, alde batera utzita organismo horrek espedientea izapidetzean parte hartu duen ala ez. Orobat, neurri zuzentzaileak hartuko dira, ahal izanez gero, hurrengo ez-betetzeak prebenitzeko.

Kontseilu Errektoreak ebatziko ditu bere erantzukizunaren esparruan hartu beharreko neurriak. Kasu horietan, BISAk salaketen izapidetze-egoeraren jarraipena egingo du, tratamendurako eta ondorioak proposatzeko aurreikusitako epeak betetzeari dagokionez.

Nahitaezko organoak, ikerketa egin ondoren, emaitzaren berri emango dio BISARI. Hark, jasotako dokumentazioa aztertu eta dagokion espedientean sartu ondoren, itxi egingo du espedientea, azken kudeaketa egiteko eta dokumentuak artxibatzeko.

## 5.6. Zehapen-prozedura

Kooperatiban, diziplina-ahala, arau-hausteen edo hutsegiteen araubideari eta haien zehapenei dagokienez, Langileen Estatutuan eta aplikagarri den hitzarmenean ezarritakoaren arabera dago araututa.

Kooperatibako langile batek delitu izan daitezkeen edo barne- eta kanpo-araudiak urratzen dituzten gertakariak edo jokabideak jakinarazten edo salatzen baditu, ez zaio diziplina-prozedura edo errepresaliako beste neurririk aplikatuko, betiere pertsona horrek gertakariak edo jokabideak egiazkoak direla uste badu.

Erakundeko pertsonaren batek komunikazio faltsua egin duela egiaztatuz gero, diziplina-prozedurara jo ahal izango da, aplikagarri den araudiaren arabera, gainerako erantzukizun guztiak, penala barne, alde batera utzi gabe.

Zehapen-prozedura BISAk jarriko du martxan, hamar (10) egun balioduneko epean, eta Kontseilu Errektoreak aplikatuko du.

Ebazpena arduradunari (edo arduradunei) jakinaraziko zaio, eta zehapen-neurria gehienez ere hogeita

## SALAKETA KANALA - 2/2023 LEGEA

hamar (30) eguneko epean betearaziko da, interesdunak (edo interesdunek) ebazpena jasotzen duenetik zenbatzen hasita, salbu eta enpresaren iritziz antolaketa- edo ekoizpen-arrazoiak edo arrazoi teknikoak badaude eta, horien ondorioz, zehapenaren betearazpena atzeratu behar bada; kasu horretan, gehienez ere bi hilabeteko epean betearaziko da.

Prozedura amaitutakoan, espedientea itxi eta betetze-direktorioan artxibatuko da.

### **5.7. Betetze-direktoria eta dokumentazioaren kontserbazioa**

BISAk jasotako salaketa guztiak korrelatiboki erregistratu eta behar bezala artxibatuko dira.

Nahitaezkoa izango da komunikazioan jakinarazitako jokabidearen edo gertakariaren euskarri izan daitezkeen dokumentu guztiak gordetzea, efektu penalak dituen intzidentzia-arriskuak irauten duen bitartean edo dokumentu horiek gordetzeko legezko betebeharra dagoen bitartean.

Dokumentuak plataformetan edo euskarri optiko, magnetiko edo elektronikoetan gordeko dira, haien osotasuna, konfidentzialtasuna, datuen irakurketa zuzena, manipulaziorik eza eta kontserbazio eta kokapen egokia bermatzeko. Dena den, paperean ere gorde ahal izango dira.